

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2699

468/2024 EBAZPENA, maiatzaren 21ekoa, Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Maria Teresa Bengoechea Latasa andrea Gainbegirale kargutik kendu egin da, Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuan.

Ekainaren 11ko 388/2019 Ebazpenaren bidez Maria Teresa Bengoechea Latasa gainbegirale izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuan Paziente eta Erabiltzaileen Arretarako Zerbitzuan (PEAZ).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gaine-rako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Maria Teresa Bengoechea Latasa andreari Gainbegirale kargutik kentzea berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuan eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek data honetatik 2024ko maiatzaren 21etik aurrera izango ditu ondo-rioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuari honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hondarribia, 2024ko maiatzaren 21a.

Bidasoko ESIko zuzendari-gerentea,
MARISA MERINO HERNÁNDEZ.